

Ondorengo tauletan gure enpresan beharrezkoak diren funtsezko balibideak sailkatu ditugu, motaren arabera: Baliabide fisikoak, giza baliabideak/intelektualak eta baliabide finantzarioak. Bertan baliabidearen izena eta baliabide horren funtzioa deskribatu ditugu.

**Baliabide fisikoak:**

Baliabidearen izena	Funtzioa
Lokala (Durangon)	Gure erakundearentzako toki finko bat lortzea, bertan bezeroak jaso ahal izateko.
Garraioa (Enpresako autoa)	Gune ezberdinetara desplazatzeko autoa.
Liburuak (Euskeraz ez daude askorik, baina, argitaletxeekin elkarreraginda itzulpenak egitea proposatu dezakegu) <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tarjetas ilustradas: lenguaje expresivo (Upbility)</li> <li>- Txakurrari gauerdian gertatutako istripu bitxia (Igela)</li> <li>- Propuesta educativa inclusiva para la atencion a la diversidad (Horsori)</li> </ul>	Eskoletako irakasle eta hezitzaileek formakuntza on bat jasotzeko, lehenengo pausua gu formatzea izango da, formakuntzatik jasotako informazio eta jakintza horiek gero haiei igorriko dizkiegu.
Haurrekin erabili ahal diren mahai jokoak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dixit</li> <li>- Juego de ajedrez: memoria de palillos</li> <li>- Juego de cartas de estimulacion cognitiva para adultos</li> </ul>	Mahai joko hauek gomendatuko ditugu haurrekin aritzeko, eta formakuntzetan ere hezitzaile taldeak hauek erabiltzeko aukera izango du, haiek etorkizunean praktikan jartzeko.
Ordenagailua(k)	Web-gunea sortzeko eta bertan informazioa idazteko eta aurrerago eguneratzeko.
Telefonoa	Ikastolen elkarrekin eta gainontzeko ikastolekin kontaktuan jartzeko, baita ere bezeroen zalantzak argitzeko.
Posterrak eta triptikoak egiteko materiala	Bezeroak gure enpresaren berri jakiteko haiekin izango dugun lehen kontakturako erabiliko ditugu.

**Giza baliabideak/intelektuala:**

Gure taldearen baitan gauden 3 kideok dauzkagun tituluak ondorengoak dira: gizarteratzaile teknikariaren titulua, gizarte langilearen titulua, begirale titulua; eta ingelerako eta euskarazko gaitasun agiri ofizialak. Ondorengo taulan roll hauek ere aipatzen diren arren erakundeak aurrera egin ahal izateko profil gehiago beharko ditu, eta gu hirurok hartuko

ditugu gure gain. Kargu hauen banaketa egiterakoan gure ezaugarrien arabera banatu ditugu:

Izena/Rola	Deskribapena
<b>Enpresaren koordinatzailea:</b> <u>Jone</u>	Lantaldeen jarduerak koordinatzea, programatzea eta gauzatzea, azkenean aurreikusitako helburuak lortzeko. Laneko kronogramak egitea. Taldeari esleitutako zereginak gainbegiratzea
<b>Zuzendaria:</b> <u>Jon</u>	Haien lanak besteak gainbegiratzea eskatzen du; jarduerak, prozesuak, baliabide materialak eta informazioa ere zuzendu ditzakete.
<b>Diruzaina:</b> <u>Helene</u>	Diru- sarreraz arduratuko da, irabazten dugun dirua gordetzen, antolatzen eta banatzen
<b>Formakuntza emango duten espezialistak:</b> PTak, monitoreak, hezitzaileak, gizarteratzaileak, gizarte langilea, sorospen laguntzaileak, IKTan espezialistak...  <u>Hirurok</u>	Gure enpresa eta proiektua aurrera joateko ezinbestekoa izango da hainbat profesionalen laguntzarekin lan egitea. Espezialista bakoitza funtzio ezberdin bat izango du. IKTan espezialistak direnak, gure webgunearen diseinua egiten eta bertan gauzak argitaratzen lagunduko digute, gu gizarteratzaile bezala, formakuntzak emango ditugu ikastola ezberdinetatik zehar.
<b>Gaitasunak:</b> komunikazio gaitasunetan abilezia, sormena, eskulanetan abila, informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak, ...  <u>Hirurok</u>	-Jendearen aurrean hitz egiteko oso garrantzitsua da - Dinamika ezberdink prestatzeko, triptikoen eta posterren diseinua sortzeko - Webgune erakargarri bat egiten jakitea ezinbestekoa izan

#### Baliabide finantziarioak:

- Gure aurrezkiak: hiru izanda bakoitzak hasieran gutxienez 1.000€ jarri beharko lituzke, gutxi gorabehera.
- Subentzio publikoa (ematekotan). Diru laguntzak ematerako orduan gure erakundearen arloa zehaztu behar da. Gure kasuan kultura gintzan baino; laguntza, beka eta dirulaguntzen baitan kokatuko ginateke, lehenengoaren kasuan

udaletxearen baitan kokatuko litzatekeelako. (2.600€-noko diru laguntzak lor  
ditzakegu [BOE](#)-n arabera)